



Gazteek euskararen eguna gozatu zuten

Euriari aurre eginez, herriko gaztetxoek argazkia atera zuten Andatza plazan

Euskararen eguna ospatzeko, abenduaren 3an, Gazte Klube-ko eta Kuadrillategiko gazteek gonbidatuta argazki masiboa atera zen Andatza plazan.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, haur eta gazteak, neskak batez ere, umorez eta gogoz azaldu ziren Andatza plazara haien aterki kolo-retsuekin.

Begiraleen hitzak jarraituz, argazki dinamiko eta dibertigarriak atera zituzten, hala nola, aterkiak airera botata, korrika egin edo aterkiaren atzean ezkatuta.

Kontzertua eta lehiaketa

Baina hau ez zen ospakizunetako ekintza bakarra izan. Izan ere, argazkiaren ostean, guztiak *Itzartu* herriko taldeak Jalgi kafe-antzekian eskaini zuen kontzertura hurbildu ziren.

Bertan, gazte guztiak argazkian izandako hotza alde batera utzi eta taldeak abestutako doinuak dantzatzu eta kantatzu ederki gozatu zuten.

Itzarturen saioaren ostean, aterkien desfilea, zozketa eta tortila dastatzea egin zuten. •



Goiko argazkian ikusten den bezala, eguraldia lagun izan ez bazen ere, gazteek argazki masiboa atera zuten Andatza plazan. Ostean, ederki abestu, dantzatu eta gozatu zuten Jalgin antolatu zen *Itzartu* taldearen kontzertu, aterki desfile eta tortila dastatzean.

Musika mota ezberdinak kulturetxean

El increíble hombre elefante taldeak kontzertua eskaini zuen ostiral iluntzean kulturetxeko kafetegian Xpression elkarte eta Udalak sinatutako gazte kontzertuen hitzarmenaren barruan.

Musika estilo ezberdinak jo zituen boskoteak, funk, rock and rolla... Kanpoko hotzari aurre eginez hurbildutako ikusleak berotzeko asmoz, emanaldiaren hasieran abesti biziak eta mugituak jo zituzten; ondoren baladak tartekatu zituzten eta batera eta gitarra gabe ere aritu ziren. •



Ostiralean egin zuen hotzari aurre egiteko, abesti biziak hasi zuten emanaldia *El increíble hombre elefante* taldeko kideek.

GIZARTEA /3

Herriko hainbat elkarterekin hitzarmenak sinatu ditu Udalak

KULTURA /4-5

9. Multimusikala ospatuko da abenduaren 17an, 18an eta 19an

GIZARTEA /6

Eguberrietarako jardunaldiak eta hainbat ekitaldi antolatu dira

PREST
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

gure Mundura etortzeko Prest!

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE ABENDUAK 18
larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

IRUN ABENDUAK 18
larunbata, 11:00

ARETO
NAGUSIAN
Etorri aurretik
izena eman!

Zesta-puntari bultzada eman nahian

Larunbatean topaketa egin zuten Michelinen zesta puntaren nondik norakoak erakusteko

Ehun lagunetik gora bildu ziren Michelingo frontoi estalian larunbat arratsaldean antolatutako topaketan. Kepa Urdanpilleta jokalaria ohiaien inguruan sortu den talde batek antolatu zuen topaketa zesta-punta bultzatzeko. Izan ere, munduko hainbat tokitara zabaldu zuten pilota joko hau euskaldunek, besteak beste, Mexiko, Filipinak eta AEBetan jokatzen da, baina gaur egun gero eta jokalaria gutxiago daude hemen eta galtzen ari den joko da.

Arratsaldeko 17:00etan zen hasteko ordua eta puntu-puntu hasi ziren mutil koxkorren arteko lehia laburrak. 10 eta 11 urteko hamaika gaztetxo ibili ziren lehia, gehienak Zumaiakoak ziren.

Profesionalen partida

Gaztetxoek txanda amaitu zenean, profesionalak hartu zuten erreleboa eta Donostiako Yagoba eta Erauskin pilotariak Hernaniko Iban Salas eta Urdanpilletaren aurka lehiatu

ziren. Hernanikoek eraman zuten txapela, beraiek izan baitziren lehenak 25 puntutara iristen, Donostiakoak gogor saiatu ziren aurea hartzen baina 16 punturekin geratu ziren.


Profesionalak jokatzen ari ziren bitartean, haurrei meriendatxo bat eskaini zieten antolatzaileek.

Partida jokatu zutenek eta ikusten egon zirenak ederki gozatu zuten mahai gainean zituzten ogitartekoekin (txoria, mortadela, gazta...) fruta eta freskagarriekin.

Omenaldia

Ondoren merezitako omenaldia egin nahi izan zioten antolatzaileek Kepa Urdanpilleta jokalaria ohiairi. 1960an debutatu zuen Urdanpilletak Bartzelonan, eta 50 urte bete direnean txapela eta oroigarria jaso zuen bere semearen eskutik.

Urdanpilletak profesional mailan leku askotan jokatu zuen, besteak beste Floridan eta Milanen.



Partida politik eskaini zituzten 10 eta 11 urte bitarteko gaztetxoek larunbatean Michelinen.

Eskola

Topaketa antolatu duen taldearen helburu nagusietako bat zesta-punta ezagutaraztea da, argi baitago ezagutzen ez duenak ezin duela jokatu eta gainbehera doan joko honi

bultzadatxo bat eman nahi diote. Horregatik, omenaldia-oren ondoren, haurrei erakusten aritu ziren bertan bildutako jokalariek, Kepa Urdanpilleta barne.

Xistera handiak eta pilotak

zeuden bertan haurrek ikusi eta probatzeko eta haur ugari animatu ziren, lehenengo aldiz zesta eskutan hartu eta pilota nolako abiadurarekin ateratzen den eta nola egin behar den ikastera. •



Semeak eman zizkion Kepa Urdanpilletari txapela eta oroigarria egin zioten omenaldian.



Urdanpilleta bera ere aritu zen gaztetxoei zesta-puntako ezaugarriak erakusten.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.
Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Alkatea eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde burua Udalarekin elkarlaneko hitzarmena sinatu duten elkarteetako ordezkariak.

Hitzarmen sinaketa ugari

Gizarte Zerbitzuekin lan egiten duten taldeak, Kabalgata eta Lasarte-Oria aldizkaria izan dira sinatzaileak

Lasarte-Oriako Udalak, azken bi aste hauetan, 2010. urteko hitzarmenak sinatu ditu sail desberdineko hainbat elkarterekin.

Lasarte-Oria aldizkaria

Abenduaren 3an, ostirala, Udalak *Lasarte-Oria* aldizkariarekin kultura sustatzeko hitzarmena sinatu zuen.

Honen bitartez, 600 eurotako laguntza emango dio Udalak urtean bi aldizkari argitaratzeko.

Hauetan, Lasarte-Oriaren historiari buruzko ikerketak eta jarduerak bultzatuko ditu aldizkariak eta horretarako, ikerketa historikoen lehiaketa egingo da.

Sinaketa honetan, Ketxus Marcos *Lasarte-Oria* aldizkari-ko ordezkariak hurrengo zenbakia 25. urteurreneko dela azpimarratu zuen.

Bi hitzarmen berri

Gizarte Zerbitzuetako sailarekin lan egiten duten Odol-emaile, Arantzazuko Amaren parroikia, *Nagusilan*, *Berpiztu*

eta *Clara Campoamor* elkarteek ere hitzarmen sinaketa izan zuten lehengo ostegunean, abenduaren 9an.

Gizarte Zerbitzuetako buru den Lourdes Acevedoren hitzetan, "elkartasunaren erakusle dira talde hauek, zeren truke lan egiten dute eta hauek gabe Udalak ezingo luke lan egin."

Gauzak honela, lehenengo aldia da, Lasarte-Oriako Udalak *Clara Campoamor* elkartearekin hitzarmena egiten duela.

Gipuzkoako bulegoa Emakumeen Zentro Zibikoan du elkarte honek eta honetatik genero biolentzia pairatzen duten biktimekin lan egiten du. Gure herriko emakumeekin lan egin ahal dezaten 1.000 eurotako laguntza izango du.

Era berean, Udalak *Berpiztu* elkarterekin sinatu duen 2.969,58 eurotako hitzarmena ere berria da.

Honen bitartez, elikagaien banaketarako eta informazioa emateko puntu finkoa izango du Lasarte-Oriak. Hau, Gipuzkoan elkarteak duen hirugarre-

na eta errekurso ekonomiko urriak dituzten pertsonen elikagaiak banatu eta hauek beharrezkoak dituzten zerbitzuak ezagutzera ematea du helburu.

Bestalde, *Nagusilan* elkarteak jasoko duen 1500 eurotako diru laguntza dago. Honek, pertsona adinduentzako borondatezko lana sustatzen du: hauen etxetara Atsokakareko egoitzara eta erresidentziara bisitak egiten dituzte.

Arantzazuko Ama parrokiako hitzarmenean, 1470 euro, berri, gazteen borondatezko lana sustatzea eta gazteen eskola laguntza zerbitzua egitea adosten da.

Eta hauetaz gain, herriko odol emaileen elkarteak dugu, 2388 eurotako laguntzarekin.

Erregeen Kabalgata

Azkenik, 2011. urteko lehenengo hitzarmena dugu Kabalgatarena. Sortu berri den *MEGABA* elkarteak antolatuko du Erregeen Kabalgata eta horretarako, 4.520,35 eurotako laguntza emango dio Udalak. •

LANAK

Goiegiko lanak aurrera doaz

Lasarte-Oriako Udaleko alkateak, Jesus Zaballosek, goi-mailako bilera izan zuen Bidegirekin, Goiegi inguruko lanak zirela eta.

Udalak jakin arazi duenez, inguruko bizilagun ugariaren kexuak jaso ditu obra amaitu gabe eta geldirik zegoelako. Hain zuzen ere, argirik gabe, bidegorria asfaltaturik gabe eta landareak jarri gabe zeuden eremu batzuk.

Alkatea, Hirigintza saileko presidentea den Iñaki Múgica eta Udaleko zenbait teknikari joan ziren Bidegiko zuzendariarekin berarekin, Borja Jauregiarekin, egin zen bilerara.

Ondorioz, Bidegiko presidentek eta parte hartu duten enpresek lanak urte honen bukaerarako edo hurrengoaren hasierarako amaituta egongo direla hitzeman zuten. Gainera, abenduak 3an, lanak martxan jarri zituzten berriro ere. •



Arg.: Lasarte-Oriako Udala

ZERBITZU PUBLIKOAK

Zigorrek altzariak dagokion egunean ateratzen ez dituenari

Altzariak eta tresnak dagokion egunean eta orduan botatzen ez dituzten herritarrak daude Lasarte-Orian. Zerbitzu Publikoetako presidentea den Martin Morenok azaldu duen moduan, ohikoa da joera hau gure herrian, baita kartoia, botilak eta zabor poltsak kontainerretatik kanpo ikustea ere.

Gauzak honela, Udaleko garbitasuna mantentzeko altzairuak uzteko dauden puntu gatazkatsuenak zuzenago behatuko dituztela jakin arazi du Martin Morenok eta ezarritakoa betetzen ez duten herritarrek zigor gogorra jasoko dutela ere aurreratu du.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalak gogoratzen du, altzariak ateratzeko eguna asteazkena dela, 20:00etatik aurrera, osteguna jai eguna den kasuetan izan ezik. Orduan, astearte gauetan atera beharko dira, aipatutako ordu berean.

Honetaz gain, Zerbitzu Publikoetako sailetik azpimarratu dute, berriro ere, lurrazpiko kontainerrek dauden lekuetan zaborra ez dela lehengo Z puntuetan edo kontainerren ondoan utzi behar.

Zerbitzu Publikoetako saileko presidentearen hitzetan, "herri-tar guztien lankidetzara espero dugu elkarbizitza gizalegezkoagoa lortzeko". •



Ormazabal loradendako lagunek etxea eta mahaia nola apaindu erakutsiko dute.

Eguberrietako jardunaldiak kultur etxean

Gabonak ate joka ditugu eta, urtero legez, Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Sailak Eguberrietako jardunaldiak antolatu ditu asteartetik ostegunera, kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Aurreko edizioetan bezala, Eguberrii buruz ikuspuntu ezberdinetik hitz egingo da.

Honela, jardunaldien gai nagusiak Eguberrietako apaingarriak eta sukaldaritza badira ere, aurtengo edizioan, hitzaldi interesgarria bat ere eskainiko dela jakin arazi dute.

Diabetesa izango da hitzaldiaren gai nagusia, izan ere,

Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Departamentua sailetik ohartarazi dutenez, biztanlegoaren artean, diabetiko kopurua handitzen doa urtez urte.

Egitaraua

Gauzak honela, kultur etxeko hitzaldi aretora hurbiltzen direnek, bihar, 19:30ean, *Ormazabal* Loradendako lagunek Eguberrietan etxe apaintzeko eskaintzen dituzten ideiak ikusiko dituzte.

Asteazkenean 19:00etan, berri, Jose Ramon Garzarain *Lurra XXI* jatetxeko sukaldariak

prestatutako errezeta bat eza-gutuko dute, legatza porru eta ganbaz bete hain zuzen ere.

Eta ostegunean, aipatu bezala, hitzaldiarekin emango zaie amaiera aurtengo jardunaldiari. Ziortza Marzan dietista eta diabetes-hezitzaileak gaitasun hau duten pertsonen zuzendutako aholkuak eman-goto ditu, 19:00etatik aurrera.

Nola prestatuta jan ditzaketen azaltzeaz gain, edonoren osasunentzat kaltegarriak bihurtu daitezkeen osagaiak ere jakinaraziko ditu Marzanek hitzaldi honetan. •



Oreindik taldeak izar Abend-en (e) zuen Aurren, larunbatean joko du Xirimiri elkarrean Katolunatik datorren "085" taldearekin.



Aramazka taldea lasio multimusikalar en aurkezpenean jalgin-Aurren lehenengo taldea izango da ohiotzen, ostiralean.

IX. Multimusikala, 17tik 19ra, tenis pistetan

■ Michelingo Tenis Eremu estalian hainbat kontzertu eskainiko dira ■ Talderik ezagunena Zea Mays da, ostiralean ■ Arramazka, Hilotz, Aurka, Oreindik eta Kalean herriko taldeek joko dute ■ Gironatik 30 lagun datoz autobusean


Abenduaren 17 eta 18an, ostiral eta larunbatez, rock musika izango da nagusi Lasarte-Orian, Michelinen eta herriko zenbait tabernetan burutuko baita 9. urtez jarraian Multimusikala jaialdia. Izen bereko elkarteak antolatzen duen egitarauko kontzertu garrantzitsuenak Michelingo Tenis Eremuan burutuko dira eta herriko zenbait tabernetan ere musika taldeak eta Diak izango dira larunbatean. Aurtengo berrikuntza, igandean, hila- beren 19an burutuko duen egun osoko euskal jaia izango da. Beraz, hiru eguneko egitarau zabal antolatuko du Multi- musikala elkarteak astebururako.

JON ALTUNA
Aurtengo Multimusikala jaialdia abenduaren 17, 18 eta 19an burutuko da Michelingo tenisko pista estalian. Udak bertan egiteko aukera eskaini baitie antolatzaileei. Urtero bezala Euskal Herri osoan eta katalu- niatik datozten taldeen kon- zertuak hutsuko eta solik- lanburu bat igandeko bazka- riak ordinduko dira.

Aurtengo egitarau zaba- lean berrikuntza nagusia igan- dean egun osoz egingo den euskal jaia izango da. Beste- a, aurreko urteetan egin den antzerza, ostiral eta larunba- tean kontzertuak izango dira herriko zenbait tabernetan. Ostiral gaueko 21:00etan hasiko dira kontzertuak Michelinen eta larunbatean arratsaldeko lehen orduetan Michelinen bertan zen taber- netan. Abend, jalg, Sustrai, Obelix, Xirimiri, Iargi eta

egingo den irekiera ekitaldiar- ekin. Ordoren 21:00etan hasiko da lehenengo kontzertua. Aramazka herriko taldea izango da lehenengo taldea ohiotzen, ostiralean disko berriarekin datorren Zea Mays Leioako talde ezagunak joko du eta azkenik Marintxo Blai izendekoak. Bukatzeko DJ Bul- lioz jarkiko du oraindik bertan dienez dantza egiteko musika.

Larunbatean tabernetan
Egitarru zabal eta mardulena larunbateko da, alde bati- Michelingo kontzertua Blaka, Naiz Roxa eta Cohen talde interesgarriekin eta bestealde, 17:00etatik aurrera kontzertuak izango direlako tabernetan. Madeleine eta Maldan Behera kusi daitezke jalgin; Hilotz eta Deseign Abenden;



Aurka eta Yellow Pace, Sus- train: All Became Dust, Oreindik eta 085 Xirimiri, 19:00etatik aurrera eta Kalean Obelixen, 20:00etan. Gauen Diak izango dira Iargi eta Abenden, Karaoke gunea izango da Timon tabernetan eta Bilbo More Jaia kolektibok txikio du Michelingo festa.

Kultura askea
Alamirikapenak ere izango du tokia urtero bezala Multimusi- kalean, eta hori ostiraleko aur- kezpenean, eta larunbat eguerdiko kalejain islatuko da. Kultura eta musika aska- ren alde giro ederrean emango dute herrian itzuli bat dantza eta perkusio afrikarra egiten duen talde batekin. Multimusikala antolatuko lekua topatzeko Lasarte-Oria- ko Udalerriaren nabikoa bar- tueman eta trahira izan duzute Multimuskala elkarre- ko antolatzaileek, baina azke- nik tortu dute Michelingo tenis Eremuan egiteko baime- leku eskatu zituzten, baina azkenean Udak Michelingo tenis Eremuan egiteko aukera eskaini die, foki hau estia- beharrik izango.

Aurreko urteetan bezala Andatza Plazan egiten ez da izan, bertako bizilagunen kezak egon direlako azkenal- dian beste kontzertu batzuk antolatuz dienezan. Aipagarria da Andatzen Juan Mari Cerezoaren omenez behar kusi daitezke jalgin; Hilotz eta Deseign Abenden;

elkarrean laguntzarekin bon- tzerua antolatuz zutenen Andatza plaza bizilagunei zuzendutako ohar bat argitarat- zutela eta plaza inguruko an- tzerkiak jalg, bizilagunei eka- taldean parte hartzeko gonbi- dapen zuzena eginez eta sor- zitezkeen trabengatik aurretik bakarmena eskatuak.

Beñito ortegia
Multimusika elkarteok espe- ro zuten kontzertuak erdigne- tik urrutiratu direnez ordutegia malguaioa izango zela, baina ez dute horretan Udalerriaren eskubalasuak izan. Aurren ere, goizeko 3etan amaitu behariko dira kontzertuak eta beste ordu bate izango dute antolatzaileek musika ekipaok jaso eta toki husteko.

Multimuskalar buruzko informazioa <http://multimusika.blogspot.com/> eta labeo- ok-en dago. ■

Egun osoko euskal jaia igandean

■ Antolatzaileek baserriar jantzia amaitutik ateratzeko garai ona dela adierazi dute ■ Euskal jantziarekin herriarrak ondo pasatzera ateratzea da antolatzaileen helburua



Datorren igandean abenduaren 19an Lasarte-Oriako Euskal Jaia emango dio amatera 9. Multimusikala jaialdiari Michelingo Tenis Eremu Estal- lian bertan.

Egun oso festa izango da igandekoa, Multimuskalak proposatuta herriko zenbait elkarte aritu dira Euskal jaia antolatzen, hain justu helburu nagusi horrekin: herriarrak festan parte hartzea eta horixe eskatzen diete herriarrei, garai bateko baserriarren atropak jantzi eta ondo pasa- tzera ateratzeko kalera, egun osoan herriarretako aukera egongo da eta. Amaturako Jon Las, Ekeitz-eko Ruben Aranz eta Ostadurreko Vivi Valin antolatzaileek emari- digue euskal jaietan berr.

Kaleja
Multimuskalaren egitarau- ren barruan den ekitaldi honetan, goizean hasia eus- kal giroa izango da nagusi herriko kaleetan. Kalejira handi batekin emango zaio hasiera euskal jaiari. Udalebe- aurretik goizeko 11:00etan abiatuko da kantu jira hori tri- titilari, txistulari eta Xumela abesbatzarekin.

Gero, Michelinen hamai- ketakoa, joku herrikoak, baz- karia, kantaldi eta herri eromeria antolatuko dituzte. Bazkalostean, herriko ber- sioari artuko dira, Fernin Balentzia bakarjari ezagun eta "maltatuak" kantatuko du eta ondoren, arratsaldeko 17:00 aldera, "lasarteoriarak an- tzerki" bidalko dituzte anto- lazaileek; eromeria izango da Michelinen, bertatzen dire- nek nabikoa dantza egin- dean. Baetik, Ekeitz talde- ko kidean laguntzaz, jaialdi "dirdalkoak" burutuko dute

ko dituzte Michelingo tenis eremura, bersolari, txistulari, txistulari, kantu jira, joku herriko, kantaldi, erome- ria... eta jaiari kobrea emate- ko, parte hartuko dutenei baserriarrez jantzeko deia luzatu diete. Euren ustez, jantzi ona da gainera euskal jaia amaitutik ateratzeko ondoren Santo Tomas eta Olentzero datoz eta.

Joku herrikoak
Egundian Michelinen lau joku ezberdinetan neurituko dituzte indarrak Ostadurrek antolat- tako joku herrikoien jaialdi- sokatira, lokax-bilketa, saku karrera eta gizon proba deltu- rikoak, bai da, bi pertsonen artean, bai gurpil baten gail- nean eta beste gailuaren.

Jaialdi honetan ere herria- ren parte hartzea bututuko nahi dute: Ostadurrek aterako du talde bat eta nahi duenak parte hartu dezake adin mugarik gabe.

Bazkarirako txartelak
Igandean Michelinen egingo den bazkari herrikoako bar- telak salgai daude 12 eurotan. Amalur eskolan eta Artizar, Iargi eta Jalg tabernetan.

Aspaldiko euskal jaia
Euskal Jaia lehen ere izan direla apatu zigun Jon Lasak, baina berak ia 40 urte darama- tza herrian eta ez du ezagutu euskal festak Lasarte-Orian. Udaberrian egiten omen zen aurreko mendeko Euskal Jaia hori.

Igandekoa antolatuko dute- nek adierazi digutenez, eus- kal jai hau ondo ateratzeko bada eta herriarrek gogoia baldin badute, herriko urteari begiratu data egokituko dute, aigan udaberrian. ■



BERTAKO FABRIKAZIOA

Solomoko baratxuritan-Baserri patea

Odolkira Solomoko ontzuetan

Ekeko txarizoa

Txistura

ADURIZ DE LASARTE S.A

Lodi Barren Jalea 3 - Tel: 943 361278 - 943 361655 - 943 362541

Lasarte-Oria

Triptakak - Salixiak

ZORIONAK KORRIKALARI!

Basurde burua

Eguberrietan hainbat ekintza

Lasarte-Oriako alkateak ate joka ditugun Eguberrietako ekitaldiak aurkeztu zituen

Alboka abesbatza eta musika eskolaren Gabonetako kontzertuak Eguberrien iragarle izango dira, abenduaren 19 eta 20an, gure herrian. Musiké Tekne hari laukotearen kontzertuaz gozatzeko aukera ere egongo da, abenduaren 22an.

Baina hauetaz gain, herria girotzeko argiteria, Gabonetako haur parkea eta Erregeen Kabalgata ere egongo dira.

Ekimen hauen guztien aurkezpenean egin zuen lehengo astean Jesus Mari Zaballos alkateak.

Argiteria

Honetan, gure herriko kaleak alaituko dituen argiteria abenduaren 18an martxan jarri eta urtarillaren 6an kenduko dela azaldu zuen alkateak.

Gabonetako argiteria Lasarte-Oriako zeharkatzen duen ardatz nagusia izango da, hau da, Atsokabarreko ingurubidetik hasi eta Kotxeraseko ingurubidera.

Alkateak aipatu zuenez, ingurubideetan elur malutak eta oreinak egongo dira aurreko urteetan bezala. Baina "kaleetan argiteria berria izango da. Hauek hiru arku dira led-ez, kontsumo baxuko argiez osatuak eta keinuak ere egingo dituzte.

Honek guztiak, 27.500 eurotako aurrekontua du,

"iazko kopuru bera mantendu dugu horrela," azaldu zuen alkateak.

Honetaz gain, Udalean iaz egon ziren apaingarriak kororak eta lakioak egongo direla ere aurreratu zuen.

Gabonetako Haur Parkea

Gabonetako Haur parkearen berri ere eman zuen herriko alkateak.

Urtero legez, Michelingo frontoian izango du leku, baina aurten "egun gutxiago izango dira abenduaren 22tik 31era. Abenduaren 24an eta abenduaren 31an goizez bakarrik eta Eguberri egunean itxita egongo da"

Ordutegiari dagokionez, goizeko 11:30etatik 14:15era eta arratsaldeko 16:30etatik 20:30era izango da irekia.

Animagik enpresak kudeatuko du aurten ere Gabonetako haur parkea eta ludoteka, eszenatokia, kontsolak, puzgarriak, tailerrak, rokodromoa eta zezen mekanikoa izango dira honetan.

Sarrerak euro bateko balioa izango du eta lortutako dirua Juanjo Marante GKEarentzat izango dela jakin arazi zuen alkateak. Erakunde hori ere parkean egongo den tabernaren kargu egongo da.

Alkateak azaldu zuenez, ekintza ugari egongo dira haur parkean.



Gabonetako Haur parkean, haur eta heldu ugari bildu ziren iaz joko eta kontsola desberdinen inguruan jolastera.

Honela, Olentzero egongo da irekiera egunetik 24ra eta haurren eskutitzak hartzeaz gain, opariak emango dizkie hurbiltzen direnei; abenduaren 23an, haur eta gaztetxoentzako dantzaldia egongo da txanogorritxu rock taldearen eskutik arratsaldeko 18:00etan; abenduaren 28an, berriz, Sun magoaren saioa egongo da; abenduaren 30ean, Txintxo eta Txintxeta pailazoekin barrez lehertuko dira haurrak eta 31ean, umeentzako kotilioia egongo da.

Aurreko urteetako ilarak ekiditeko, txandak ezarriko

direla azaldu zuen alkateak, "bi ordutakoak izango dira eta honela bina txanda egongo da, bai goizean, baita arratsaldean ere. Jende kopurura, 350 pertsonara iristean, ezinongo da gehiago sartu eta hurrengo txandara arte itxaron beharko dute."

Era berean alkateak jakin arazi zuenez, ez da abenduaren 31ean helduentzako dantzaldirik egongo.

Erregeen Kabalgata

Eta urtarillaren 5ean, ohitura den legez, Erregeen kabalgata izango da Lasarte-Orian.

Arratsaldeko 18:00etan iritsiko dira erregeak herrira eta Zaballosek adierazi zuenez, "MEGABA elkarte berriak, ibilbide zaharra eskuratu nahi du." Era honetara, Kale Nagusiko bidea egiteaz gain, Pablo Mutiozabal, Iñigo de Loyola eta Geltoki kaleetan barrena ibiliko dira ekialdetik datozen erregeak.

Goizean, berriz, erregeek Atsokabar zaharren egoitzara bisita egingo dute eta haien laguntzaileek herriko erdialdean tailerrak egin eta erregeentzako haurrek dituzten eskutitzak bilduko dituzte. •

Emakumeen zentro zibikora ere Eguberriak iritsiko dira

Emakumeen Zentro Zibikoak ostiralean, abenduaren 17an urte amaierako merienda ospatuko du, 16:00etatik aurrera.

Baina ez da hau Eguberrietarako antolatua duen ekintza bakarra, Eguberri egunetan mahai erdialdea apaintzeko

ikastaro bat ere egingo da, *Ormazabal* loradendako lagunen eskutik.

Eguna zehazteko dago oraindik, beraz, parte hartu nahi duten emakumeek Zentro Zibikora hurbiltzea besterik ez dute informazioa eskuratzeko. •



Ormazabal loradendako lagunek Ramon eta Korok iaz ere ikastaroa eskaini zuten.

Elkarbizitza aztergai antzerkian

Maria Luisa Merlo, Miriam Diaz Aroca eta Jorge Roelas, Juan Carlos Rubioren *100 metros cuadrados* obra eskainiko dute, larunbatean abenduren 18an, Manuel Lekuona kultur etxean.

Arratsaldeko 20:00etan, erreallitateko gertaera batean oinarrituta, drama eta umorea nahasten dituen antzezlanak ikusiko dute kultur etxera hurbiltzen diren herritarrek.

Historia

Inmobiliariako agenteak Sari eskaintzen dion etxebizitzak nahi dituen ezaugarri guztiak ditu.

Baina, eragozpen bat dauka, etxearen jabeak kondizio bat jartzen du; bertan bizi ahal izatea hil arte.

Lolak hirurogeita hamar urtetik gora ditu eta bi aldiz jasan du bihotzeko ebakuntza. Pakete tabako bat erre-



Bi emakumeren elkarbizitza berezia ikusi ahaliko da *100 metros cuadrados* lanean.

tzen du egunean, eta aurrean jartzen dioten guztia edaten du, beraz ez dirudi luze biziko denik.

Honen aurrean, Sarak aurrera egitea erabaki, eta etxebizitza erosiko du.

Baina gauzak ez dira norberak uste bezala gertatzen.

Bizitzaren gorabeherak eta elkarbizitzak egoera aldatuko dute.

Sarrerak

Manuel Lekuona kultur etxean eskuragarri daude sarrera gutxi batzuk, 10 eurotara. •

Egunero

Erakusketa

METAMORFOSIAZ, Jasone Irigoien margo erakusketa. Jalgin.

Erakusketa

DENBORAREN MUETAN, Migel Angel Oriberen erakusketa abenduaren 21etik aurrera. Kulturetxean, 18:00-21:00.

Asteartea, 14

Jardunaldia

EGUBERRIETAKO JARDUNALDIEN barruan Ormazabal Loradendak Eguberrietan etxea apaintzeko ideiak emango ditu. Kulturetxean, 19:30etan.

Asteazkena, 15


Jardunaldia

EGUBERRIETAKO JARDUNALDIEN barruan Jose Ramon Garzarain Lurra XXI jatetxeko sukaldariak Eguberrietarako menu bat eskainiko du. Kulturetxean, 19:00etan.

Osteguna, 16

Jardunaldia

EGUBERRIETAKO JARDUNALDIEN barruan Zioztza Marzan dietistikak diabeteari duten pertsonei zuzendutako aholkuak emango ditu. Kulturetxean, 19:00etan.



Pilota eta politika osteguneko filman

LA CASA DE MI PADRE, Gorka Merchanek zuzendutako filma eskainiko du Okendo Zinema Taldeak ostegunean.

Carmelo Gomez, Emma Suarez eta Juan Jose Ballesta dira film honetako protagonistak; Txomin, ETAK mehatxutako enpresari bat da eta 10 urte Argentinian exiliaturik eman eta gero, bere herrira itzuliko da bere anaia Koldo oso gaizki dagoelako. Koldok mesede bat eskatzen dio Txomini...

Gorka Merchan zuzendaria etorriko da filma aurkeztera. Sarrera doan izango da.

OSTEGUNA 16
KULTURETXEAN 21:30EAN
GAZTELANIAZ

Larunbata, 18

Antzerkia

100 METROS CUADRADOS antzezlan Txalo produkzioen eskutik. Sarrera, 10 euro. Kulturetxean, 20:00etan.

Igandea, 19

Kontzertua

ALBOKA ABESBATZAK Eguberrietako kontzertua eskainiko du. Kulturetxean, 12:00etan.

Zinea

GRU, MI VILLANO FAVORITO haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan.

Astelehena, 20

Kontzertua

UDAL MUSIKA ESOLAK Gabonetako kontzertua eskainiko du. Kulturetxean, 19:00etan.

Asteazkena, 22

Haur parkea

EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA abenduaren amaiera arte. Michelingo Udal Kirolgunean.

Kontzertua

MUSIKÉ TEKNE taldearen emanaldia. Sarrera, doan. Kulturetxean, 19:30etan.

Eskutitzak

Errausketaren Aurrakio Koordinakundeak Donostiako PSE salatu du

Donostiako Administrazioarekiko auzietarako 3. epaitegiaren kautelazko etenaldiaren aurrean, Hernaniko atez-ateko zabor biltzaile partzialki etetea behartuko lukeena, Gipuzkoako Errausketaren Aurrakio Plataformen Koordinakundeak Donostiako Udaleko PSE salatu nahi du, denuntzia hori sustatu duelako.

Gogora dezagun, PSE Odon Elorza buru zuela eta Denis Itxaso bigarren, 2007an hiriko alkatez lortu zuela, PNV, PP eta EAri erraustegiaren errua botatzen zien programa elektoral batekin. Programa honen helburu nagusia murriztu, berrerrabili eta birziklatzea zen, eta etxeetan birziklatu beharreko hondakinen kopurua %31tik %50era igo nahi zuten.

Legeladiaren amaieran gaude eta PSE errausketaren babesle da, hauteskundetan agindutakoa bete gabe (2007tik birziklatutakoaren kopurua %1a igo da). Eta gainera Denis Itxasok ezereztatu egin nahi ditu Hernani, Oiartzun eta Usurbilen ukaezin diren lortutako emaitzak, atez-ateko biltzaileen ondoren, %80ko birziklapena lortu dutenak eta FCC bezalako enpresa handi baten interesen alde ari da, kontrataren baldintzak berriro negoziatu beharrean.

Garbi geratzen da PSEen interesak, zaborrak kudeatzen dituzten enpresa handiek eta Zubietako planta eraikitzeko ardura duten eraikuntza-enpresek dituzten berberak direla. Krisi garaian PSEk ez du zalantzarik langabeen, pentsiodunen edo langileen eskubideak murrizteko garaian, baina prest dago 400 milioi euro gastatzeko izugarriko lehenengo (papera, plastikoa, materia organikoa, e.a.) pila suntsituko duen erraustegi batean, energia pixka bat eta gai kutsagarrien (CO2, NO2, metal astunak, dioxinak, furanoak, e.a.) kopuru garrantzitsu bat sortzeko planetaren eta gure osasuna oraindik eta gehiago kaltetuko dutenak.

Hobe lukete Odonek eta Denisek, errausketaren aurka dauden Asturiaseko bere partiduko kideei begiratu baliote, baita ere PSCko hainbat alkateei, azken urteotan beraien herritan atez-ateko biltzaile martxan jarri dutenei.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Gipuzkoako Errausketaren Aurrakio Plataformen Koordinakundeak

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik 13:00etara
eta arratsaldeko 16:00etatik 21:00etara
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara.



Oharrak

Erketzen Olentzeroko entsaioak

Olentzeroren etorrera dela-eta, Lasarte-Oriako inguruko baserrietan barrena kantari atera nahi duenak aurtur ere aukera paregabea izango du Erketz EDTekin. Horretarako entsaio bat antolatu dute abenduaren 17an. Entsaioak Zumaburu eskolan izango dira 20:00etan.

Jaiotzen lehiaketa

Danok Kide Guraso Elkarteak aurtur ere XVIII. Jaiotzen Lehiaketa antolatu du. Lanak abenduaren 20an eta 21ean entregatu behar dira 18:00etatik 20:00etara Blas de Lezo kaleko egoitzan. Jaiotzek 80 x 60 zm.ko neurria izan dezakete gehienez.

Euskarri sendoa ez duen jaiotzik ez da onartuko, ezta lehiaketa honetara aurreko urteetan aurkeztutakorik ere. Banaka nahiz taldeka har daiten parte beti ere lan bakarra aurkeztuta. Gutunazal itxi bat

entregatu behar da lanarekin batera, honen kanpoko aldean partehartzailearen edo taldekoen adina idatzi behar da; barruan, izena, helbidea eta telefonoa.

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskarri karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

Erraldoiak dantzatzeko ikastaroa

Erraldoiak dantzatzeko ikasteko Arrieskallera elkarteak ikastaroa antolatu du. Interesa izanez gero, elkartetik pasa izena ematera edo arrieskallera@gmail.com helbidera mezu bat bidali izena eta telefonoa jarri. Ikastaroaren lehenengo zatia Arrieskallatan

bertan emango da. Izena emateko azken eguna abenduaren 17a da. Animatu eta hartu parte! Izan zaitez jaien partaidea!

Odol ateratzek

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egin dituzte Osasun Zentroan abenduaren 27an arratsaldeko 18:30etik 20:00era. Anima zaitezte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Gabonetako Txokoak

Urtero bezala, Itakuneg Eguberrietako Txokoak antolatu ditu. Izena emateko epea zabalik dago eta apuntatzen diren lehenengo 40 haurrak hartuko dira. Hiru aukera ezberdin daude izena emateko: lehenengo astea, bigarrena edo biak. Informazio gehiagorako deitu 943 371448 telefonora, bidali mezua aisia@ttakun.com helbidera edo Itakunetik edo Amaraun ludotekatik pasa zaitezke.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal proposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Lasarteoriatarrak Sahararen alde

Elkarretaratzea egin zuten ordu erdiz udaletxe aurrean larunbat eguerdian

Txintxarri

Abenduaren 10ean Giza Eskubideen eguna zela kontutan hartuta, Mendebaldeko Sahararen egoera larria salatzeko elkarretaratzea antolatu zuten larunbatean Sahara Herriaren Lagunak taldeak, Komite Internazionalistak eta Askapenak, "lasarteoriatarrek euren elkartasuna erakusteko Saharar herriari".

Udaletxe aurrean, eguerdiko 12:00etan bildu ziren berrogeita hamar herritar inguru, eta ordu erdi pasatxo, Mendebaldeko Sahararen egoera larria salatu zuten Giza Eskubideen alde, Sahara Askatu lelopean. Antolatzailuek esan zigutenez, "Hemen, Euskal Herrian, herriaren nahia saharar herriari laguntzea da, beraien askatasuna lortzen laguntzea. Ditutuen eskubideak, lasai, duintasunez eskuratzen


laguntzea eta bide horretan eragile guztiak egin behar dugu bat, norbanakotik aldundietara, elkarreetatik alderdi politikoetara".

Sahara Herriaren Aldeko Lagunek, Maroko Saharar herrian burutzen ari den triskantza ere salatu nahi dute, "Hori baita Espainiar estatuak salatu nahi ez duena, egia eta bertan gertatzen dena guk baino askoz hobeto jakin arren. Mila bider entzuna dugu giza eskubideak denaren gainetik daudela, mila bider errepikatu digute giza kiak denen gainetik daudela eta mila bider esan digute gezurra".

Honetaz gain, Espainiako Gobernuari bere erantzukizunari eutsi diezaion eta Sahararrek deskolonizazio prozesua itxi dezaten aldeko politika egin dezala eskatzen diote; sahararren autodeterminazio eskubidea defendatzen bereziki. •



Berrogeita hamar lagun inguru bildu ziren Mendebaldeko Sahararen egoera larria salatzeko.



Usurbilgo OIARDO Kiroldegian
2010eko abenduaren 18an, bi saio:
16:00etan eta 18:30etan

**Pirritx, Porrotx
eta Mari Motots**

"Ongi etorri Pupu eta Lore"
lan berriaren aurkezpen emanaldia

Sarrerak: aurretik 6 euro / egun berean 7 euro
(12 hilabete arteko haurrak doan)
Salgai: Orio (Arkaitz)
Lasarte-Oria (Artizar)
Hernani (Leokadisti)
Usurbil (Bordatxo, Marije eta kiroldegia)
Antolatzaila: ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea.